

ERREGELAMENDUETAN EKARPEN FINKATUKO AURREIKUSPEN-PLANEN ADMINISTRAZIO-GASTU GISA EZARRITAKO PORTZENTAJEA EGOZTEKO PROZEDURA

BANAKAKO B.G.A.E.ETARAKO

Ekarpen finkatuko banakako aurreikuspen-planei lotutako ondarearen zati alikuota bakoitzaren likidazio-balioa zehazteko, honako hau egingo da:

Aurreikuspen-plan bakoitzari lotutako ondarea kalkulatzeko (87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.3 atalean definitutakoaren arabera), administrazio-gastuak egotziko zaizkio, artikuluko 1.1 atalean ezarritakoari jarraituz. Hau da, erregelamenduetan administrazio-gastu gisa ezarritako portzentajea egotziko da.

Gauzak horrela, 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko ez ditu arautzen emandako zerbitzuen ondorioz (kudeatzea, gordailutzea, zaintzea...) Erakundeari kobratzen zaizkion komisioak. Komisioengatik portzentajeak, edo erakundeek BGAEei zerbitzuak emateagatik ezar litezkeen beste batzuk, aldeek ezarriko dituzte, askatasunez, horiei buruzko kontratuetan. Hala ere, 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.1 puntuan azaldutako portzentajeak honakoak dira: erregelamenduetan ezarri ondoren, legezko muga horien barruan, planek egunero, eskusiboki eta zehatz, administrazio-gastu gisa jasan beharko dituzten gehienezko portzentajeak, aipatutako artikuluko 1.5 atalean ezarritako muga barruan, artikuluko 1.3 atalean adierazitakoarekin lotuta.

Halaber, erakundeak, atzera eraman behar ditu inbertsio kolektiboko erakundeek edo arrisku kapitaleko erakundeek kobratutako komisio guztiak, horrelakorik egotekotan, eta inbertsio bakoitzak esleituta dituzten plan horiei lotutako ondarrera itzuli beharko dira, guztiz betetzeko 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.2 puntuan ezarritakoa, artikuluko 1.3 atalean ezarritakoarekin lotuta.

Adierazitako guztia oinarri hartuta, erakundeak, 87/1984 Dekretuaren 16.1.5 artikuluan araututakoaren arabera, egunero egotzi beharko du, bakar-bakarrik, planen erregelamenduetan administrazio-gastu gisa ezarriko den portzentajea, 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.1 atalean ezarritakoaren arabera, artikuluko 1.3 atalean ezarritakoarekin lotuta.

ENPLEGUKO B.G.A.E.ETARAKO

Ekarpen finkatuko enpleguko aurreikuspen-planei lotutako ondarrerako zati alikuota bakoitzaren likidazio-balioa zehazteko, honako hau egingo da:

Aurreikuspen-plan bakoitzari lotutako ondarea kalkulatzeko (87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.3 atalean definitutakoaren arabera), administrazio-gastuak egotziko zaizkio, artikuluko 1.1 atalean ezarritakoari jarraituz. Hau da, erregelamenduetan administrazio-gastu gisa ezarritako portzentajea egotziko da.

Gauzak horrela, 87/1984 Dekretuaren 16. artikulua ez ditu arautzen emandako zerbitzuen ondorioz (kudeatzea, gordailutzea, zaintzea...) Erakundeari kobratzen zaizkion komisioak. Komisioengatik portzentajeak, edo erakundeek BGAEi zerbitzuak emateagatik ezar litezkeen beste batzuk, aldeak ezarriko dituzte, askatasunez, horiei buruzko kontratuetan. Hala ere, 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.1 puntuan azaldutako portzentajeak honakoak dira: erregelamenduetan ezarri ondoren, legezko muga horien barruan, planek estatutuetan edo erregelamenduan ezarriko den aldizkakotasunaz, eskusiboki eta zehatz, administrazio-gastu gisa jasan beharko dituzten gehienezko portzentajeak, aipatutako artikuluko 1.5 atalean ezarritako muga barruan, artikuluko bereko 1.3 atalean adierazitakoarekin lotuta.

Halaber, erakundeak, atzera eraman behar ditu inbertsio kolektiboko erakundeek edo arrisku kapitaleko erakundeek kobratutako komisio guztiak, horrelakorik egotekotan, eta inbertsio bakoitzak esleituta dituzten plan horiei lotutako ondarrera itzuli beharko dira, guztiz betetzeko 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.2 puntuan ezarritakoa, artikuluko horretako 1.3 atalean ezarritakoarekin lotuta.

Adierazitako guztia oinarri hartuta, erakundeak, 87/1984 Dekretuaren 16.1.5 artikuluan araututakoaren arabera, estatutuetan edo erregelamenduan ezarriko den aldizkakotasunaz egotzi beharko du, bakar-bakarrik, planen erregelamenduetan administrazio-gastu gisa ezarriko den portzentajea, 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.1 atalean ezarritakoaren arabera, artikuluko horretako 1.3 atalean ezarritakoarekin lotuta.